

Miren Zubikarai Larreategi
Ondarroa, Bizkaia (1933)

Aurkibidea

Biografia

1933. urtean jaio zen. Lau alabatik nagusiena, ama lekeitiarra zuen eta aita arrantzalea. Hiru urte gaz kanpora joana: Katalunia, Frantzia... Bere bilobak egin zion grabazioa Ondarroako institutuko ikaslea zela.

Zintak

OND-041

- **Proiektua:** Ondarroako institutuko grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bengoetxea, Maialen
- **Data:** 2014-01-27
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Aretxabaleta, Bakarne

Pasarteak

1. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** OND-041/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetako gaiztakeriak. Auskan egiten zutela dio. "Tiragoma" erabiltzen omen zuen poltsikoan. "Tronpi". Gizonen batek bizikleta ate kanpoaldean uzten zuenean, hartu, buelta bat eman eta atzera lehengo lekuan uzten zuten.</p>

Transkripzioa

- Kontastazun ba...
- Gaiztue zelanik? Auskan-ta eitti ta? Ordun zeñek ez eban eitten auskan ba?
- Auskan eitten zendun, aume?
- Egurrak be muntu einde eukitxen genduzen ta ikutoik be ez, eta buenoo! han ibiltxen giñan holanik. Gaiztu? Gaiztu baiño [txarrao]. Beatu, ni akordaten na 10 urteaz-ta tiragomi eukitxen neban patrikaran.
- Bai. Eske ya espero dot.
- Tiragomi, e, [...]. Tiragomi. Txintxirrike tiragomi. Tronpi, ontxe be badakit / badai/ tronpan ta. Bizikletan. Han lagaten baeben behian [...] edo, gixonen batek -han taberni euan ta- tabernako atin lagaten baeban bizikleti -ordun gizionezkun bizikletak barra handi bat eukitxen eben: asientu, manillarra ta "una barra", ez zan ongo morure holanik-, ordun eitten gendun barrin azpittik hanki pasa ta bizikletan buelti ein ta osta be lengo lekun laga. [...]
- Holako gauzak-eta be bai ein douz, ta bueno. Eta...
- Eta askotan harrapa?
- E?
- Askotan harrapa?
- Ez! Bizikletia laga, alla kuidaos jausten bada...

2. Iturritik ur-garraioan, zinka buru gainean jarrita

- **Erref:** OND-041/004
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Etxean ur gutxi izaten zuten, baina iturri bat zegoen beheko kalean. Buru gainean sorkia ipini, gainean zinka, eta txandan joaten ziren iturrira, ur bila. Berriatuko alkateak iturburu bat aurkitu zuela eta, musika eta dena egon zen herrian. Baina artean hodiak sartu behar zituzten eta beste urtebetez jarraitu zuten ura buru gainean garraiatzen.

3. Mutrikura jaietara joatearren zigortuta

- **Erref:** OND-041/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Behin bi lagun Mutrikura joan ziren oinez, jaietara. Zezenak ikusteko ordaindu egin behar zen eta ez zieten utzi sartzen. Iluntzean berriz oinez itzuli behar- Etxean errieta egin zieten, eta zigortu, gainera. Udara zen eta ezin joan dantzara.</p>

Transkripzioa

<p>- Beste baten jun giñan Mutrikure, Mari Tere eta neu.</p>
<p>- Mutrikure?</p>
<p>- Mutrikuko jaixeta, oiñez. Zemat urte eukiko genduzen ba?</p>
<p>- Mutrikure arte oiñez?</p>
<p>- Ordun oiñez asko eitten zan, autobuseako diroik ez baeuan. Jun giñan Mutrikure Mari Tere eta neu, eta ez doskun lagundu Rosariok bez ta Marilok bez, ez doskun lagundu. Jun giñan bixok. Ala! Jaboiaz gogortu patillak atzerutz eta Murikure jaixeta. Jun giñan zezenak ikustea eta, klaro, paga ein bihir zan entradi eta ez doskuen laga sartzen. Ez geunkan diroik. Ta gero hantxe, ein genduan han Mutrikutik buelta bat edo beste eta iluntzin etxea. Ia, etxea etorri bihir giñan, ta ostera be oiñez etxea. Bixok astebete…</p>
<p>- Ta Kamiñazpira arte.</p>
<p>- E! Aste beteko hori emon oskun /emoskun/ kastigu etxin, neuri be bai ta bera be bai. Lelengo palizi emon oskuen /emoskuen/ Mutrikure jun giñalako eta gero astebetin. Ta klaro, udi zanetik, Madalenak ixaten di ta, udi zanetik, ba, domekan be baltsiure ezin jun ta eguenin be ez. Hori e... hori zan, kastigo handixe zan, egun bixin baltsiure ezin jun. Astebetin bixok kastigata. Ta on berau Donostin bixi da Mari Tere ta alkarrei kontaten hasten gazenin “akordaten za guk eitten... guri pasaten gazkuzenak?”. Holantxik zan mundu, diferente, diferente-diferenti.</p>

4. Domekan dotore jantzi eta mezara

- **Erref:** OND-041/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Astean zehar arropa arruntekin ibiltzen ziren, baina igandeetan guztiz

aldatzen ziren: gerri estu-estua markatzen zuten berokiak, takoidun zapatak, mantila tente-tente... Liburua besazpian hartu eta mezara. Latinez izaten ziren orduan mezak.</p>

Transkripzioa

<p>- Domeketan euan domeketako erropi ta astegunin asteeguneku. Asteegunin, bueno, nire aitzak-eta euran amantala plantxataku-ta eukitten eben biharreako, eta neu be... Ni ez nitxanetik / enitxanetik/ juten, ba, nik ez neuka amantalik, nik gona tubu ta jertsu bat ta bueno. Domeki aillaten zanin, danok desfigurata: zapata takoidunak, gerri esto-estuk –eukiko ez gendun, ba? argal-argalak geuazen danok eta–; gerri esto-estuk, abrigo belodune, mantilli tentia ipinitte halantxeik... Hartu misal latín y español, que todavía lo tengo. Liburu hartu kaltzarpin eta elixa errezaixukon. Guantik eta danak jantzi-jantzi eindde, elixa, mezata, mezu entzutea. Ta mezu latiñin abadik emoten baeban, zeuk be bai latiñin irakurri bihir zendun /bizendun/.</p>

<p>- Baiñe…</p>

<p> - Ta ia nundik zekixun zuk latiñin irakurten.</p>

5. Elizkizunetara, infernuaren beldur

- **Erref:** OND-041/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Denak joaten ziren elizara domekan; gutxienez meza bat entzun behar. Larunbatean salbea. Aste Santuan prozesioak. Gogo-jardunak egitera fraide batzuk etortzen ziren, oso gogorrak. Denak bekatariak zirela esaten zuten. Misioak ere egiten ziren bi urtez behin. Jaungoikoagan federik ez zutela orduan dio; beldurra zioten elizari, infernuari. Gaur egun nola bizi duen fedea.

6. Umetan eskola batetik bestera; irakasleak

- **Erref:** OND-041/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Bera eskolan hasterako, su hartu zuen eskolak eta batetik bestera ibili ziren. Hasieran Goi kalean zegoen Ospitalean, Blanquita Leibarrekin. Gero, gaur egun Musika Eskola dagoen lekuan, Anita Arriolarekin. Ondoren, Carmen Blanco izan zuen irakasle. Bigarren mailatik laugarrenera pasa ei zuten zuzenean. Eskola berria egin zutenean, hara pasa ziren.

7. Eskolan kantuan eta buruz ikasten zuten

- **Erref:** OND-041/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako kontuak abestuz ikasten zituzten. Buruz ikasten zuten, baina ezer ulertu gabe. Oraindik ere gogoan ditu geografian ikasitako izenak. Baina gero ideiarik ere ez zuten bakoitza non zegoen. Gaur egun desberdin ikasten dela dio.

8. Umetan zoriontsu; zeukatenarekin pozik

- **Erref:** OND-041/014
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetan zoriontsu ziren zeukatenarekin, besterik ez zuten ezagutu eta. Saturrarana joaten ziren presoei jatekoa eramatera, bidean txisteak kontatuz. Komedianteak zetozenean, plazara aulkia hartuta, ikustera.

9. Arrantzaren sasoi onetan, Ondarroa aberatsa

- **Erref:** OND-041/016
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Arrantzaren garai onetan Ondarroa oso aberatsa izan zen. Orduko bizipenak. Bi zinema zeuden: Alameda eta Bide-Onera. Non zeuden eta nolakoak ziren. Inguruetatik jendea etortzen zen domeketan eta hiru ilara ere egoten ziren batzuetan.</p>

Transkripzioa

<p>- Gero hasi zanin itsosu emoten-ta, herrixe [altza zan] dana, bai. Nik ezautu dot Ondarru aberats-aberatsa. Aberatsa benetaku, e! Barakat ondiokan erretrato batzuk, e, Ondarruko portun, edurre eindde, erretratu atata, edurraaittik atata. Portun ez zan kabiaten orratzik be ez, dana txalopi, dana [haxe] txalopi. Euan... bueno! Ondarru zan ordun... Ondarru zan handixe. Ondarrun euazen zine bi ta domeketan etorten zan Markiñatik be bai jenti ta Mutrikutik be bai jenti, autobusetan. Etorten zin zinea. “Cine Bide-Onera” ontxe goixan dana eta besti kafe-antzokixe zan lekun euan zini, “Cine Alameda”

gakon hari ixena, ta “Cine Bide-Onera”. Baiña zinin, ba, [oin] ze esango dotsut ba? 150 bat lagun-ta igual kabiaterko beste bai. Bai, bai, handi-handixak. Kafe-antzokixak ointxe dak... eukan eskillarak eukazen lekun, ba, eskillaran hegaletik hasi ta kamiñura arte, hiru illara, hiru illara, e, horrekin…</p>

<p>- Bai, bai.</p>

<p>- ... asientukin. Ta gero goixe ointxe dan modure, ointxe be ez da goixe kendute ta. Ha zan “anfiteatro”. Ha merkiaua zan.</p>

10. Garai bateko bizimodua Ondarroan

- **Erref:** OND-041/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:23:02. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai bateko bizimodua zeharo ezberdina zen. Gutxiarekin bizi ziren, baina inork ez zeukan asko. Gero aldatu zen kontua. Antxoak balioa lortu zuenean, txalupen jabeak aberastu egin ziren eta marinelek ere gehiago irabazten zuten. Gizonezkoak zeuden etxeetan diru gehiago lortu zen, baina eurak lau ahizpa ziren. Euren amak nahiago zuen umeak eskolara bidaltzea, fabrikara baino. Fabrikara Aste Santuan joaten ziren.

11. Amaren bizimodu gogorra

- **Erref:** OND-041/019
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak eurak eskolara joatea nahi zuen, berak ez zuelako aukerarik izan. Aitita amak zazpi urte zituela hil zen, eta zazpi anai-arreba geratu ziren. Are miseria handiagoan bizi beharra izan zuten. Maria Katalin zuen izena amak, baina "Maria Lekitto" deitzen zioten.

12. Izebak jauregi garrantzitsuetan neskame

- **Erref:** OND-041/021
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Bere bi izeba Zita enperatrizaren palazioan egon ziren zerbitzatzen, Lekeition. Bietako bat handik "Sotarenera" (gaur egungo Ibaigane jauregia) joan zen.

Lehenengo ume-zain egon zen eta gero giltzari. Zazpi-zortzi neskame ei zeuden han.

13. Aitita eta amamaren maitasun istorioa

- **Erref:** OND-041/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Mirenen amama Bernardak eta aitita Remigiok nola ezagutu zuten elkar. Aititaren aitak beladun txalupak omen zeuzkan. Bernarda neskame egon zen bertan, eta maitemindu egin ziren. Edarrarekin iturrira joaten zen ur bila eta nahita ura bota egiten zuen gehiagoren bila joan eta han Remigiorekin bat egiteko.</p>

14. Amaren ezkontza Begoñako aldare nagusian

- **Erref:** OND-041/024
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Ama neskame ibili zen batean eta bestean. 21 urterekin ezkondu zen Begoñan. Amona "amama" moduan egonda zegoenez bertan, hango etxekoandreaki esker aldare nagusian ezkondu ahal izan ziren. Dirua zutenak aldare nagusian ezkontzen ziren, Ama Birjinaren aurrean; pobreak atzean, ipurdia emanda. Belusezko soineko urdinarekin ezkondu ei zen "amama Lekittoa". Eztei-bidaian Santanderrera.</p>

15. Gerraren hasiera: gizonak itsasoan eta ama beldurtuta Lekeitiora

- **Erref:** OND-041/028
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:48:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerra Zibilaren hasiera nola bizi izan zuten. Estatu kolpea egon eta Errepublikak kendu zutenean, nazionalak berehala hartu omen zuten Nafarroatik Donostia alderakoa. Herrian zabaldu zen Francorekin zebiltzan moroek euskarazko izenak zituzten umeei bularrak erretzen zizkietela. Ama bakarrik zegoen, aita aititarekin atunetara irtenda zegoelako, eta beldurtuta, amarengana Lekeitiora joateko poltsa prestatu zuen. Hiru egunerako joan zen,

baina hilabete eta erdi egin zituen Lekeition, Ondarroan zerrenda beltzean zegoela jakin zuen eta. Bitartean, aita eta aitita Bilbora joan behar izan ziren arrainarekin, gerrako barkuek behartuta. Txaluparik itsasora irten ez zedin, piezak kentzen zizkieten. Halako batean itzuli ziren herrira.</p>

16. Gerra garaian Santanderrerraino ihesean

- **Erref:** OND-041/029
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:48:29. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bi lehengusu Bilbon Itsasalde batailoira joan ziren boluntario. Aita eta aitita ere boluntario joan ziren Markinara, intendentzian jendea behar zutela eta. Jatekoaz arduratzen ziren. Intendentzia lehenbizi Mungiara eta gero Gernikara mugitu zuten. Eurak ere Gernikara joan ziren, Lekeitio berehala hartuko zutela jakin zutenean. Handik Bilbora alde egin zuten. Amari umeak barkuan atzerrira bidaltzea proposatu zioten, baina ez zuen nahi izan. Ospitalean zegoen aitita jaso, umeak hartu eta ihesean Santanderrerraino joan ziren. Han Euzko Jaurlaritzak ipinitako barkuetan Frantziara eraman zituzten. Han ez zituztela nahi eta trenean Bartzelonara bidali zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com